

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea 7 zenbakiko zerga ordenantzaren 15. eranskinaren aldaketari. Ordenantza horrek dantza irakasteko zerbitzua jasotzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen du

Udalbatzak, 2014ko uztailaren 31ko osoko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion dantza ikasketengatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen 7 zerga-ordenantzaren 15. eranskinaren aldaketari (14053H700 espediente). Iragarki hori 2014ko abuztuaren 13ko ALHAOn (91 zk.) argitaratu zen. Haren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea bukatuta, erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, halaxe agintzen baitu martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 17.3 artikuluan. Horrela, bada, jendaurrean jartzen da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak 17.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Zerga ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hona hemen zerga ordenantzaren testu aldatua hitzez hitz:

DANTZA IKASKETENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN 7. ZERGA ORDENANTZAREN 15. ERANSKINA

1. artikulua. Lege oinarria

Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 24. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik, dantza ikasteagatik ordaindu beharreko tasa onartzen da.

2. artikulua. Subjektu pasiboa

Dantza ikasteagatik ordaindu beharreko tasa ordaintzera derrigorturik daude otsailaren 28ko Foru Arauak, Arabako zergei buruzko orokorrak, 35. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, baldin eta Dantza Eskolan izena ematen badute.

3. artikulua. Tarifa

1. Hila bukatutakoan ordainduko dira tarifak, bankuan helbideratuta.
2. Hila bukatutakoan sortuko da ordaintzeko beharra, ikaslea dantza eskolara zenbat bider joan den gorabehera. Ordaindu beharrekoa, gutxienez, hilabete bati dagokiona izango da.
3. Hona hemen ordaindu beharreko tasak:
 - 3.1. Dantza hastapenak ikastaroa: 62,97 euro hilean.
 - 3.2. Dantza ikastaroa: 69,97 euro hilean.
 - 3.3. Helduentzako dantza ikastaroa (astean behin): 34,99 euro hilean.
4. Tarifak urtero eguneratuko dira, eta urte natural bakoitzeko irailaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak, aurreko urteko abenduaren 31n EAEk zer KPI zuen, zeina Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratzen baitu, huraxe ezarrita.
5. Zero dantza hastapenak ikastaroa, 4-5 urteko umeentzat: 0,00 euro eta matrikula ordaindu beharrik gabe. Behin baino ezin izango da egin ikastaro hori.

4. artikulua. Izena ematea

Dantza eskolako ikasleek udal erregistro orokorrean eskatuko dute, idatziz, alta edo baja ematea. Dena den, beti aplikatuko da 1.3 artikuluan xedatutakoa, eta tasa ordaintzeko beharra sortuko da dantza eskoletara joan ala ez. Izena ematean, 41,97 euro ordainduko da, matrikulazio tasa gisa.

5. artikulua. Hobariak

1. Tasaren ehuneko 20ko murrizketa egingo da ofizioz, baldin eta egiaztatzen bada ikaslearen familia unitateko kide guztiak udalerrian erroldatuta daudela.

2. Kuotetan ehuneko 50eko hobaria eskainiko zaie familia ugarikoak diren eta Amurrio Udalerrian erroldatuta dauden ikasleei. Familia ugariko kide izatea matrikula egiteko unean egiaztatuko da Familia Ugariaren Titulua edo konpultsatutako fotokopia aurkeztuz.

6. artikulua. Ezordaintzeak

Tasa horien zorrak premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

AZKEN XEDAPENA

Dantza ikasteagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen 7.15 zenbakiko eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarrean izango da harik eta aldatu edo indargabetzen den arte.

Amurrio, 2014ko irailaren 19a

Alkatea

M. JOSUNE IRABIEN MARIGORTA